

Otxandioko hizkera: adinaren araberako bariazioa

JOSE LUIS ORMAETXEA*

1. SARRERA

Lan honetan herri bateko, kasu honetan Otxandioko hiztunen artean euskarak zer bilakabide duen aztertu gura dugu. Alegia, belaunaldi batetik hurrengora zein aldaketa gertatzen diren, zeren eraginekoak diren eta zein joera hartzen duten geroari buruz.

Zehatzuz, helduen belaunaldia (45-50 urte bitartekoak) dugu, alde batetik, eta gazteena (20-25 urte bitartekoak), bestetik. Belaunaldi bakoitzeko berriemaile bakarra hautatu dugu, eta bietan gizonzkoa. Berriemaile bakarra izatea muga bat da, baina hala ere uste dugu emaitza eta ondorio fidagarri eta interesgarriak lortu ditugula. Beraz, adina aldagaia hartu dugu soilik kontuan ikerketa honetan.

Galdetegiak 202 galdera ditu, eta hizkuntzaren hainbat alorretako ezauzgarriak hartzen ditu.

2. TEORIAZ ZERTXOBAIT

Euskal dialektoen eta hizkeren azterketa ugari egin dira aspaldiko urteetan. Baina gehienetan adinekoren hizkera, dialekto tradizionala aztertu da. Eta, aldiz, ezer gutxi egin da ikuspegi soziolinguistikotik. Azken urteetan, hala ere, lan batzuk agertzen hasi dira, batez ere Aurrekoetxearen eskutik. Alde batetik, Aurrekoetxeak teoriak dioena (batez ere European) ezagutu eta zabal-

* EHU. Lan hau EHUk babestutako "Euskararen Atlas sozio-geolinguistikoa" (UPV05/72) ikerketa-proiektuaren barruan kokatzen da. Ikerketa horretan Euskal Herrian 100 herri hautatu dira, eta herri bakoitzean bi inkesta pasatzen dira, bata heldu bati eta bestea gazte bati. Proiektuari buruzko xehetasunetarako ikus Aurrekoetxea & Ormaetxea 2006. Eskerrik beroenak EUDIA ikerketa-taldeko Gotzon Aurrekoetxea eta Aitor Iglesiasi lan honi egin dizkioten iradokizun eta oharrengatik.

du du, eta, bestetik, teoria horren argitan inkesta batzuk egin eta ondorio batzuk atera ditu. Labur esanda, hauxe da Aurrekoetxeak atera duen ondorio nagusia: hizkera batzuetan bederen, belaunaldi gaztearen eguneroko hizkerak euskara estandarren eragin handia erakusten du, oinarri dialektalaren kaltetan (Aurrekoetxea 2003, 2004, 2006, 2008).

Antza denez orain euskararen kasuan gertatzen ari dena Europan lehenagotik ari da gertatzen, batez ere estandarizazioa aspaldiko kontua den hizkuntzetan (Auer 1998: 1):

There is overwhelming evidence that the relevance of the standard varieties in everyday life has increased greatly as a consequence of modernization and mobility in the industrialized European societies, as a result of the centralization of the state and the spreading mass media, and in particular following the changes in the educational system.

Europan aldaera estandarrek halako nagusitasuna badu, pentsa daiteke gure kasuan ere bide beretik joko dugula, edo jadanik bide beretik goazela. Baina hori egiaztatzeko azterketak egin behar dira, azterketa soziolinguistikoak.

Aipatzen denean aldaera estandarrek dialektoan eragiten duela, konbergentziaz edo bateratzeaz hitz egiten da. Eta konbergentzia bi norabidetan gertatzen da: konbergentzia bertikala, estandarren eta dialektoaren artekoa, eta konbergentzia horizontala, dialektoen artekoa. Gu hemen konbergentzia edo bateratze bertikalaz arituko gara, alegia, jakin nahi dugu euskara estandarrek nolako eragina duen dialektoan. Zehatzago esanda, aztertu nahi dugu eragin hori nola gauzatzen den bi belaunalditan (helduak eta gazteak), eta zein desberdintasun ikusten diren bien artean.

Bestalde, eta Bellmann-ek (1998) alemanean bereizi bezala, konbergentzia izan daiteke indartsua (hizkuntza estandarren interferentziak dialektoa ia desagertzera daramanean) edo ahula. Euskararen kasuan ere baloratu behar dugu nolako indarra duen konbergentzia horrek. Otxandioko kasuan ez nuke esango momentuz konbergentzia oso indartsua denik. Aitzitik, ez du ondorio bera atera Aurrekoetxeak Arratiari dagokionez (Aurrekoetxea 2006: 158):

Arratian egin den ikerketak argi eta garbi uzten digu aldaera estandarren eta euskalkien arteko bateratze indartsua ari dela gertatzen eremu eta lurralde batzuetan, behintzat.

Oraingoz datu gutxi dugu eta ezin ondorio erabatekorik atera. Baina gure ikerketa-proiektuak ("Euskararen atlas soziolinguistiko-dialektologikoa" deiturikoak) aurrera egin ahala eta datu-base handia osatzen dugun heinean, gai izango gara esateko aldaera estandarrenzko konbergentzia handia ala txikia den.

3. INKESTA ETA METODOLOGIA

Esan bezala, bi lekukoei (helduari eta gazteari) 202 galderatako galdesortak egin zaie. Jakina, galdesorta berbera biei, jasotako emaitzak erkatu nahi ditugunez. Galdesorta motza da izan, baina proiektua Euskal Herri osorako de-

nez, ezinbestean izan behar mugatua. Edonola ere, inkestaren emaitzak kontuan hartzekoak direla uste dugu, eta aski adierazgarriak¹.

Zehatz ditzagun, dena dela, galdesortari eta erabilitako metodologiari buruzko ezaugarri nagusiak:

- Galderak Euskararen Herri Hizkeren Atlasetik (EHHA) ateratakoak dira. Atlasean 2.875 galdera ziren, eta proiektu honetarako egokiak ziren 202 aukeratu dira.
- 202 galderak hizkuntza-arlo hauetan banatzen dira: lexikoa (120 galdera), izen-morfologia (23), aditz-morfologia (39), sintaxia (20).
- Berriemaileak: ikerketa-proiektu honetan bi dira herri bakoitzeko berriemaileak, biak gizonezkoak, bata heldua (45-50 urte bitartekoa) eta bestea gaztea (20-25 urte bitartekoa). Otxandioko kasuan helduak 48 urte zituen inkesta egin zuenean (2007ko apirilean) eta gazteak 23 urte (inkesta 2006ko irailean egin zuen). Otxandion jende gehiena kalean bizi da, eta baita berriemaile hauek ere. Bestalde, lanbidea dela eta, heldua lantegi batean dabil, eta gaztea unibertsitatean ikasten zebilen inkesta egin zitzaionean.
- Elkarrizketa grabatu egin da eta hainbat bide erabili dira datuak lortzeko: galdera zuzenak, azalpenak, itzulpenak, etab.
- Helburua erregistro informala (alegia, egunero etxean, kalean, lagunartean erabiltzen den hizkera) lortzea denez, horretara bideratu dugu gure ahalegina, ongi azalduz zer espero dugun haiengandik. Eta uste dugu oro har lortu dugula nahi genuena, ehuneko ehunetan lortzea ezinezkoa bada ere.

4. DATUEN AZALPENEA

Interesatzen zaiguna da agertzea zertan diren berdin helduaren eta gaztearen hizkerak, eta batez ere zertan eta zein heinean desberdintzen diren. Pentsatzekoa denez, gehienez bat etorriko dira, osterantzean haien arteko elkar ulertzeak berak arriskuak bailituzke. Eta gehienez bat etorriaz gainera, desberdintzen diren horretan ere normalean ez da egongo ulertu ezinik. Eman ditzagun zenbait adibide. Esaterako, espainierazko ‘ayer a la noche’ helduak *bart* eman du eta gazteak, ostera, *atzo gabien* eta *atzo gabas*. Erantzun arras desberdinak, bistan denez. Baina bai helduak ulertuko du gaztearena (eta ulertu bakarrik ez, ziurrenik hainbatetan erabili ere bai), eta baita seguru asko gazteak helduarena. Azken honetan zalantza gehiago sortzen dira: baliteke gazteren batek *bart* hori ez ulertzea, baina normalena da herrian bertan entzuna izatea edo eskolan ikasia. Hortaz, ulermenean arazorik ez.

Beste etsenplu bat: ‘azul’ esateko, helduak *asule* eta gazteak *urdiñe*. Ulermen arazorik ez. Koloreen mundua oso konplexua bada ere², hemen garbi ikusten da euskara estandarrek gaztearengan izan duen eragina. Beste bat:

¹ Ikerketa-proiektu honek Euskaltzaindiak garatzen diharduen *Euskararen Herri Hizkeren Atlas-EHHA* egitasmoarekin lotura handia du. Batetik, hark erabilitako galdesortatik aukeratu dira galderak, hark erabilitako herrietatik aukeratu dira herriak eta hark daukan programa informatikoa erabili du, Euskaltzaindiak erabilera-lizentzia eman baitio EUDIA ikerketa-taldeari.


² Koloreen kontuaz interesa duenak bibliografia zabala dauka. Esaterako, J. M. Preciadok (1994) bere tesian Aramaion egin zuen azterketa kontsulta dezake.

‘saldo didazu’ esateko helduak *saldo dustasu*³, eta gazteak *saldo nosu*. Ulermenean arazorik ez dago. Kontu hau, dena dela, sakonago aztertzeke moduko da. Beste galdera batean alderantziz gertatzen da: ‘esan dit’ adierazteko helduak *esan nau* bota du, eta gazteak *esan dost*.

Orain, azal ditzagun helduaren eta gaztearen artean gertatzen diren desberdintasunak. Hauek dira kopuruak:

- a) Lexikoan: 16 (% 13,3).
- b) Izen-morfologian: 5 (% 21,7)
- c) Aditz-morfologian: 18 (% 48,7)
- d) Sintaxian: 8 (% 40)

Guztira, desberdintasunak 47 dira (% 23,2).



5. DATUEN AZTERKETA

Datuak aztertzen hasi aurretik, egin ditzagun zenbait zehaztapen. Alde batetik, Otxandion euskarak duen egoera aipatuko dugu labur, eta, bestetik, helduen belaunaldiaren eta gazteen belaunaldiaren artean dauden desberdintasunez arituko gara.

2006ko datuak laster izango baditugu ere, momentuan 2001ekoak ditugu⁴. Otxandion euskararen ezagutza handia da. 2001ean lau biztanletik hiru (% 74,7) euskaldunak ziren, ia euskaldunak % 11,5 eta erdaldunak % 13,8. Gazteen artean ia ez zegoen erdaldunik 2001ean; izan ere, % 91,7 euskaldunak ziren. Helduen artean, ostera, egoera okerragoa zen: euskaldunak nagusi baziren ere (% 67,6), erdaldunen kopurua ere azpimarragarria zen (14,9).

³ Berriemaileek emandako datuak idazkera ortografikoan eskaintzen ditugu, haien ahoskera errespetatuz (*dustasu*, *nosu*).

⁴ Datuok Alonso, I. & I. Artiatx 2005etik hartu ditugu.

Erabilerari dagokionez, 2001ean Otxandioko Euskara batzordeak, herriko zenbait kultur talderekin elkarlanean, kale-neurketa bat egin zuen. Behaketa zuzena erabili zen, hiru egunez, eta 689 elkarrizketa behatu ziren. Ondorio nahiko larriak atera ziren neurketa hartatik: helduen artean euskararen erabilera oso eskasa bazen (% 15,5 euskaraz eta % 84,5 erdaraz), gazteen artean are okerragoa zen (% 6,5 soilik euskaraz eta %93,5 erdaraz). Eta orotara (hau da, haurrak eta zaharrak ere barne), hauek izan ziren emaitzak: % 22,1 euskaraz, eta % 77,9 erdaraz. Ezagutza eta erabilera parean jarritz gero, gazteen datuak zinez kezkarriak dira: % 91,7 euskaldunak izan arren, kaleko erabilera % 6,5ekoa izan zen. Helduen datuak ere, hobeak izan arren, ez dira pozik egotekoak: ezagutza % 67,6 eta erabilera % 15,5.

Datu hauek kontuan izanik, eta egoera aldatzen ez bada, ez da astakeria pentsatzea luzera ondorioak izango dituela, bai euskararen estatusen eta baita Otxandioko euskararen corpusean ere.

Bestalde, eta inkestetan jaso ditugun datuak ulertzeko argigarri gerta daitekeelakoan, helduen belaunaldiaren eta gazteen belaunaldiaren artean dauden zenbait desberdintasun aipatuko ditugu:

- Heldua zaharren bizimodutik eta mundutik gaztea baino askoz gertuago dago.
- Heldua gaztelaniaz eskolatua izan da, eta gaztea euskaraz, euskara batua nahiko finkatua zegoen garaian.
- Helduen belaunaldikoek euskara estandarrarekin duten harremana nahiko txikia da, ez da iraunkorra, baina izan badute: haurren bidez, telebista, irratia... (askoz gutxiago irakurketa). Gazteen belaunaldiak, ostera, ume-umetatik du harremana estandarrarekin, eta harreman hori ez da inoiz eten.
- Eskolaren eraginez, gaztea kulturizatuagoa da heldua baino.

Has gaitezen, bada, datuen azterketarekin. Galdesorta hainbat arlotan banatua dagoenez, azterketa ere arloka egingo dugu: lexikoa, izen-morfologia, aditz-morfologia eta sintaxia. Gainera, galdesortan fonologiak galdera zehatzik egiten ez bada ere, azterketa honetan aipatu behintzat egingo dugu fonologia, izan ere beste arloetan jasotako erantzunetatik hainbat ondorio atera baitaitezke. Azkenik, datuak orokorrean aztertuko ditugu.

5.1. Lexikoa

Galdera gehienak lexikoak hartzen ditu, 120 hain zuzen ere. Lexikoan bi belaunaldien artean berdintasunak dira nagusi (104); desberdintasunak 16 dira (% 13,3). Erantzuna desberdina dela kontsideratzeko, hitz batak eta besteak oinarri desberdinekoak izan behar dute. Aldiz, oinarri berbera dutenean, nahiz eta azaleko aldeak izan, orduan berdintzat jotzen ditugu. Esaterako, batek *uridxolak* ‘uholdeak’ esan badu, eta besteak *euridxolak*, berdintzat hartzen ditugu. Edo *ixarie* eta *isarie* ‘izara’.

Desberdintasunak asko ez direnez, banan-banan iruzkinduko ditugu. Kasu batzuetan berriemaile helduak eredu zaharra (‘oinarri dialektala’⁵, Bell-

⁵ Otxandioko oinarri dialektalaz jabetzeko, besteak beste, Burgetek eta Gamindek 1991 idatzitako *Otxandioko euskaraz* liburuaz baliatu gara.

man-en (1998: 23) kontzeptua erabiliz) darabilen bitartean, gazteak berria darabil: helduak *igitargidxe*, *samieleko subidxe*, *bart*, *dxaurtu* ‘jaurti’, eta gazteak *illargidxe*, *ostadarra*, *atzo gabien* (edo *atzo gabas*), eta *bota*. Gutxienez gaztearen bi erantzunetan (*illargidxe*, *ostadarra*) euskara estandarraren eragina nabarmena da.

Kasu batean eredu zaharrear aukeran dauden bi berbaren artean helduak bat aukeratu du (*amandre*) eta gazteak bestea (*amama*).

Beste adibide batean, biek maileguaz baliatzen dira, baina helduarenak eredu zaharragoa iradokitzen du: helduak *enterraidxue*, eta gazteak *funerala*.

Heldua batzuetan maileguz baliatzen da: *kantzau*, *tuertue*, *apellidue*, *asule*; gazteak, aldiz, euskal ondareko hitzak darabiltza: *nekie*, *begibakarra*, *abise-na*, *urdiñe*.

Gutxiagotan, baina kontrakoa ere gertatzen da, helduak euskal hitza erabiltzea eta gazteak mailegua: *inddertzue*, *uketu* eman ditu helduak, eta gazteak *fuertie* eta *suisidau*.

Azkenik, bi kasutan (‘pantorrilla’ eta ‘yerno’ kontzeptuak adierazteko) gazteak ez du erantzunik eman; helduen erantzunak hauek izan dira: *bolie* (& *pantorrillie*) eta *suiñe*. Eta beste bitan (‘remolino’ eta ‘suspiro’) helduak ez du erantzunik eman, eta gaztea batean maileguaz baliatu da (*remolinue*) eta bestean euskal ondareko hitzaz (*asperena*).

Honaino berriemaile helduaren eta gaztearen artean antzeman ditugun desberdintasunak. Ez dira datu nahikoa, egia esan, ondorio nabarmenak ateratzeko. Alabaina, joera batzuk antzematen dira: helduak eredu zaharrari dion atxikimendu handiagoa, eredu estandarraren eragina gaztearengan, kulturaren aldaketaren arrastoak...

Bestalde, aipatutako desberdintasun absolutuez gain, beste hauek ere aipa genitzake: zenbait kasutan berriemaile batek bi erantzun eman ditu, eta besteak bakarra. Esaterako, helduak *buskentza* eta *odolostie* eman ditu ‘morcilla’ kontzepturako, eta gazteak *buskentza* bakarrik; edo ‘ombligo’ esateko *tirriñe* eta *siñe*, eta gazteak *txirriñe*. Alderantziz ere gertatu da, gazteak bi erantzun ematea eta helduak bakarra: gazteak *bietza* eta *atzamarra*, eta helduak *atzamarra*; ‘caro’ kontzeptua adierazteko ere gazteak *karue* eta *garestidxe* eman ditu, eta helduak *karue* baino ez. Adibide hauetan ere suma daiteke gaztearengan bestelako aldaerek duten eragina: gipuzkerarena (*bietza*) eta estandarrarena (*garestidxe*).

5.2. Izen-morfologia

Izen-morfologian 23 galdera egin dira eta horietatik 5etan erantzun desberdina eman dute helduak eta gazteak. Harrigarri samar gerta badaiteke ere, lexikoan baino handiagoa da desberdintasuna (% 21,74).

Hauexek dira desberdintasun horiek:

<u>Heldua</u>	<u>Gaztea</u>
<i>onek mutikuok</i>	<i>mutiyonek</i>
<i>oni mutikuoni</i>	<i>mutiyonei</i>
<i>a gisona</i>	<i>gison a</i>
<i>astuekin</i>	<i>astuekas</i>
<i>birriten</i>	<i>bi bider</i>

Estu jokatu, balegoke 6. desberdintasun bat ere, izan ere NORA kasua eskatzen zen galdera batean ('el agua va al mar') helduak *itxasoa* eman duen bitartean, gazteak *itxasorantza* eman baitu. Baina ez dugu kontuan hartu, hurrengo galderan ('va hacia la mar') biek eman baitute berdin (*itxasoantza* helduak, eta *itxasorantza* gazteak).

Hortaz, goiko 5 desberdintasunak kontuan izanik, lehen hiruetan helduak eredu zaharra hautatu duen bitartean, gazteak eredu berriagoa eta estandarragoa eman du. Beste bietan esan dezakegu aukera desberdinak egin dituztela.

Bestalde, aipatzekoa da NOREKIN kasu singularrean lekuko gazteak forma osoa eman duela (*astuagas*), eta helduak laburtua (*astuas*). Baina, jakina, hau ez dugu desberdintasuntzat jo.

5.3. Aditz-morfologia

Aditz-morfologian ere badira desberdintasunak helduaren eta gaztearen arteko hizkeran. Estu jokatuta, 39 galderetatik ia erdietan (18) desberdin eman dute. Hauetan ez ditugu sartu ondoko bi hauek: 1) 'nindoan' formarako biek aditz perifrastikoa erabili dute, helduak *dxu(n) nitzen* eta gazteak *yute(n) nitzen*. Perifrastikoa erabiltzekotan gazteak emandakoa zen espero izatekoa, baina baliteke helduak ez oso ondo ulertu izana gaztelaniazko esaldia ('yo iba a la escuela cuando sucedió eso'); 2) Batuko 'joan zaitzte' aditzerako biek aditz nagusia soilik erabili dute, laguntzailerik gabe, baina helduak *dxuen* eta gazteak *marxau*. Baina desberdintasun hori lexikoari dagokio, eta ez aditzari.

Erdiak inguru desberdintasuntzat jo baditugu ere, denak ez dira maila berekoak. Esango genuke batzuk desberdintasun garbiagoak direla besteak baino. Esaterako, desberdintzat jo ditugu alde batetik dxat eta *yata* 'zait', eta bestetik (*saldu*) *dustasu* eta (*saldu*) *nosu* 'saldu didazu'. Azken desberdintasun hau nabarmenagoa da, sistemari eragiten baitio, eta lehenean, aldiz, sistema beraren aldaerak baino ez dira. Beste hauek ere aldaeratzat joko genituzke (lehena lekuko helduari dagokio eta bigarrena gazteari): *sarielsare* 'zarete'; *dxaten / yatan* 'zitzaidan'; *daure / dabe* 'dute'; *ebasen / ebasan* 'zituen', *tze / tzie* 'dionte', *sabise / sabitzie* 'zabiltzate'; *dauke / daukie* 'daukate'. Gainerakoek, ordea, sistema desberdina erakusten dute:

<u>Batua</u>	<u>Heldua</u>	<u>Gaztea</u>
zituzten	<i>eben</i>	<i>ebesan</i>
zenuten	<i>sauen</i>	<i>dosuen</i>
dezake	<i>i(n) leike</i>	<i>iñ al dau</i>
diogu	<i>(saldu) du</i>	<i>(saldu) tzau</i>
diezaioke	<i>(ekarri) leike</i>	<i>(ekarri) leikidxo</i>
zegoen	<i>(berbetan) euen</i>	<i>(berbetan) ebijen</i>
zeuzkan	<i>euki ebasen</i>	<i>eukesan</i>
dakarte	<i>ekartzen daure</i>	<i>dakarre</i>
dakartza	<i>ekarten daus</i>	<i>dakas</i>

Alde hauek ikusita, ondorio batzuk atera daitezke:

- 1) Gazteak gehiagotan gordetzen du komuntadura helduak baino: *ebesan* 'zituzten', *tzau* 'diogu', *leikidxo* 'diezaioke'. Gorago aipatutako kasu batean (*dostasus / nosu* 'didazu'), hala ere, heldua da komuntadura gordetzen duena.

- 2) Zenbaitetan helduak forma zaharragoa darabil, eta gazteak berriagoa edo sinplifikatuagoa: *leike / al dau; (berbetan) euen / (berbetan) ebiyen; sauen / dosuen*.
- 3) Zerrendako azken hiruretan ikus dezakegunez, lekuko helduak adizki trinkoak erabiltzeko ezintasuna erakusten du, eta horien ordeztu forma perifrastikoetara jotzen du. Gazteak, aitzitik, forma trinkoak darabiltza, Otxandioko oinarri dialektologikotik hurbilago daudekeenak. Hemen pentsa daiteke eskolan ikasitako gramatikak eragina izango zuela gaztearen erantzunetan.
- 4) Euskara batuaren eragina: gaztearengan beti espero den eragin hori, hau da, eskolaren eta hedabideen bidez jaso ohi duena, ez da nabaritzen aditzari dagokionez.

5.4. Sintaxia

Sintaxian egin diren galderak 20 izan dira. Horietatik 8tan desberdin erantzun dute helduak eta gazteak. Beste batzuetan ere bada diferentzia txiki bat, baina ez sintaxiari dagokiona. Esaterako, ‘deitu’ aditzaren erregimena dela eta, helduak *deittu i(n) naure* esan du, eta gazteak *deittu i(n) ñabe* ‘deitu egin naute’. *Naure* eta *ñabe* adizki beraren (‘naute’) aldaerak dira; beraz, hor ez dago desberdintasun sintaktikorik.

Desberdintasunak aztertuz, ondorio hauek atera ditzakegu:

- 1) Gutxienez erdietan heldua oinarri dialektologikotik gertuago dabil gaztea baino:

<u>Heldua</u>	<u>Gaztea</u>
<i>lagundu tzo</i>	<i>lagundu dau</i>
<i>urten dau</i>	<i>urten da</i>
<i>yun in biko su</i>	<i>yun biko sa</i>
<i>egon al dosu</i>	<i>egon al isengo sara</i>
<i>beren besinue⁶</i>	<i>bere bisilagune</i>

Hor guztiak ez dira molde berekoak, baina uste dugu ezkerrekoak Otxandioko zaharrenek darabiltzaten formak direla. Gaztearen erantzun batzuetan euskara estandarren eragina suma daiteke, gutxienez *urten da* eta *bere bisilagune* horietan.

- 2) Gainerakoetan hizkera honetan posible diren aukera desberdinen artean helduak bat aukeratu du eta gazteak beste bat:

<u>Heldua</u>	<u>Gaztea</u>
<i>auki dot disgusto asko</i>	<i>disgusto asko euki dodas</i>
<i>bedarra ebaitten daus</i>	<i>bedarra ebaitten dabis</i>
<i>Pedro baskaitten dau</i>	<i>Pedro yaten dabil</i>

⁶ Galdera honi egindako erantzunean: *Pedro me ha dicho que su vecino es un ladrón*.

6. BESTELAKO DATUAK

Galdesortan arlo desberdinetan hainbat ezaugarri jaso nahi izan ditugu. Baina emandako erantzunetan informazio gehiago ere badaukagu. Alegia, eta adibide bat emanez, erdarazko ‘le he esperado durante dos horas’ galderarekin lexikoan ‘esperar’ hori berriemaileak nola ematen duen jakin nahi izan dugu. Kasu horretan berriemaile biek berba bera erabili dute, nahiz eta aldaera desberdinak: helduak *etxaten* (<*etxan*), eta gazteak *etxoitten* (<*etxoin*). Baina erantzun osoa kontuan hartzen badugu, bada bestelako desberdintasun aipagarriarik. Jar ditzagun parez pare helduaren eta gaztearen erantzuna:

heldua: *etxaten ego(n) nas ordu bitten* / gaztea: *bi orduen ego(n) nas etxoitten*

Sintaxiaren aldetik, interesgarria da *bi* zenbakiaren erabilera. Helduak izenaren ondoren darabil, eta gazteak aurretik. Galdesorta osoan honelako adibide bakarra bada ere, beldur handirik gabe ondoriozta daiteke gaztearen erabilerak euskara estandarren eragina salatzen duela.

Hortaz, galdesortan berriaz jaso nahi izan diren ezaugarriez gain, alorrez alor, beste zenbait ere ekarriko ditugu. Eta fonologiatik hasiko gara.

6.1. Fonologia

Ikerketa honetan fonologia ez da bereziki lantzen. Galdesortan ez da fonologia aztertzeke galdera zehatzik egin. Baina gainerako arloetan emandako erantzunetatik hainbat datu atera ahal ditugu fonologiari dagozkionak. Lexikoan ikusten ditugun desberdintasunak sarri fonologikoak dira. Erdarazko ‘viento del sur’ esateko biek darabilte hitz berbera, ez dute hitz desberdinik erabiltzen, baina aldaera batek eta besteak badute desberdintasun fonologikorik: helduak *egoaxie* dio, eta gazteak *egoaixie*. Hots, helduak bustiduraren ostean monoptongazioa egin du, eta gazteak ez.

Bestalde, lexikoaz gain, beste arloetan emandako erantzunak ere oso baliagarriak zaizkigu informazio fonologikoa lortzeko.

Dena dela, eta kontuan izanda ikerketa honetan fonologia ez dela bereziki aztergai, hemen ikusi ditugun desberdintasun nabarmenenak iruzkinduko ditugu. Batzuk bilakabide fonologikoak dira:

- 1) Yeismoa⁷: belaunaldien artean, hauxe da desberdintasun nabarmen-nabarmena. Helduak ahoskera zaharra gordetzen du; gazteak, ostera, sistematikoki erdaratik sartu zaigun yeismoa egiten du. Zenbait adibide: helduak *kullarie* ‘koilara’, *kutxillue*, *mantekillie*, *ollaskue*, *orkatillie*, *billusik*, *bokadillo* / gazteak *koyarie*, *kutxiyue*, *mantekiye*, *oyaskue*, *orkatiye*, *biyusik*, *bokadiyo*.
- 2) Bustidura. Helduak *i* baten ondorengo *z* eta *s* palatalizatzeko joera du, gazteak ez bezala: helduak *ixarie*, *ixiko* ‘izeko’, *ixena*, *ixetu* ‘isiotu’ / gazteak *isarie*, *iseko*, *isena*, *isetu*.

⁷ Xabier Kintanak ‘jeismoa’ deitzen du, eta honelaxe azaldu zertan datzan: “I palatal edo bustia, euskaraz ll (*llabur*, *Mallabia*, *Ollargan*...) eta il + bokal (*oilaskoa*, *mutila*, *langilea*...) idazten dena, i edo j moduan ebakitzea da: *jabur*, *maiabia*, *oiargan*, *oiaskoa*, *mutija*, *langijea*, hots, hitz horiek erdaraz y-az idatzirik baleude bezala esatea. Eta fenomeno hau, oraintsura arte gure artean ia-ia ezezaguna, gero eta hedatuagoa da” (http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1172049570).

- 3) *j*:- hitz-hasierako *j*-ren ahoskera dela eta, helduak sabaiaurreko afrikatu ahostuna ebakitzeko joera du (idatziz *dx*), eta gazteak gehienetan *y* eta inoiz gaztelaniazko *j* belarea ere bai [x].

Horrela, NOR-NORI adizkietan eta ‘jan’ eta joan’ hitzetan ikus dezakegu desberdintasun hori: helduak *dxat* ‘zait’, *dxaten* ‘zitzaidan’, *dxun* ‘joan’, *dxuteko* ‘joateko’, *dxan* ‘jan’ / gazteak *yata*, *yatan*, *yuten*, *jueteko*, *yan* (& *jan*).

- 4) *-u + a > e*: arau hau oro har helduak zein gazteak betetzen badute ere, sistematikoagoa da helduaren hizkeran: helduak *kur’osune* ‘gura duzuna’ / gazteak *gur’osuna*.

Beste batzuk aldaera fonetikotzat jo ditzakegu:

- *eu > au*: bilakabidea helduaren hizkeran gertatzen da, ez gaztearenean. Helduak *auridxe*, *auki* / gazteak *euridxe*, *euki*.
- *-u / -o*: hitz-bukaeran, hainbat hitzetan helduak *-u* (*enbudu*, *kasu* ‘cazo’, *katarru*, *kanposantu*, *gogu*) / gazteak *-o* (*enbudo*, *kaso*, *katarro*, *kanposanto*, *gogo*).
- *ai > ei*: ezaugarri hau ere helduarena da. Helduak *geixue*, *geixorik*, *erei* ‘eragin’ / gazteak *gaisue*, *gaixorik*, *erain*.
- *-d- > -r-*: helduak joera handiagoa du kontsonante-aldaketa hau egiteko. Helduak *uraskena* (baina *udabarrixe*), *eran* / gazteak *udaskena*, *edan*.
- Bestelako fenomeno batzuk (asimilazioak, kontsonante-aldaketak...): helduak *ukundue*, *ixiko* ‘izeko’, *iñuntz* ‘ihintz’, *doas* ‘ditut’, *posporue*, *sagatie* ‘zarata’ / gazteak *ukondue*, *iseko*, *iñontza*, *dodas*, *pospolue*, *saratie*.

Ondorioz, eta arau fonologiko eta aldaera fonetikoei dagokienez, garbi ikusten da helduaren eta gaztearen arteko aldea: heldua gertuago dago Otxandioko euskara zaharretik, eta gazteak berrikuntzak erakusten ditu edo euskara batuaren eragina du.

6.2. Izen-morfologia

Lan honetan bereziki interesatzen zaizkigunak 3. puntuan aipatu diren ezaugarriak dira. Baina galdesortari emandako erantzun guztiak arretaz aztertuta, beste desberdintasun batzuk ere azpimarragarri dira. Gutxienez hauek:

- Ablatiboan *-ti / -tik*: helduak *-k* gabeko formak ematen ditu, eta gazteak *-k*-dunak. Helduak *amendi*, *etxeti* / gazteak *emendik*, *etxetik*.
- Ahaidetasunezko hitzetan helduak mugagabea sistematikoago erabiltzen du: helduak *aitepuntako* / gazteak *aitepuntakue*. Baina hitz batzuetan gazteak ere mugagabea darabil: *iseko*, *amagiñarreba*.
- Norberaren ‘etxea’ aipatzean helduak *gure*, eta gazteak *nire*. Erdarazko ‘a mi casa’ helduak *gure etxea* esan du, eta gazteak *nire etxea*.

Ezaugarri hauetan ere garbi ikusten da heldua eredu zaharrari atxikiago dagoela gaztea baino.

6.3. Aditz-morfologia

Goiago esan dugu helduak adizki trinkoen ordez perifrastikoak erabiltzeko joera duela. Hona hemen beste etsenplu bat: helduak *esan egon* ‘ez zen egon’, eta gazteak *eseuen* ‘ez zegoen’⁸.

Gainera, beste alde hauek ere aurkitu ditugu:

- *Esan* aditzaren erregimena (Nor-Nork / Nor-Nori-Nork): Otxandion joera handia dago Nor-Nork erako adizkiak erabiltzeko. Hala, helduak *esan nau* eman du eta gazteak, aldiz, *esan dost*. Dena dela, bitxia da, beste aditz batekin (*saldu*) alderantziz gertatu da: helduak Nor-Nori-Nork erako adizkia erabili du (*saldu dustasu ollasko bat*), eta gazteak Nor-Nork erakoa (*oyasko bat saldu nosu*).
- Subjuntiboa: helduak gehiago darabiltza subjuntibozko adizkiak. Helduak *ekarri naixu*, *itxi naixue* eman ditu, eta gaztea aditz partizipioaz baliatu da (*ekarri*, *itxi*)⁹.
- ‘Diotē’: helduak *tze* (*esan tze*), eta gazteak *tzie* (*esan tzie*).
- ‘Zion’: helduak *otzan* (*dxan erei otzan*), eta gazteak *tzon* (*yan erain tzon*).

6.4. Sintaxia

Sintaxian urriak dira aldeak:

- Bi zenbakiaren kokapena: lehen ere esan dugunez, helduak mendebaldeko moldea darabil, bi zenbakia izenaren ondoren jarriz (*ordu bitten*), eta gazteak, ostera, izenaren ezkerretara (*bi orduen*).
- -tzen / -tzeko: helduak -tzen (*sure semiek lagun bat ekartzen daure gaur baskaitten*), gazteak -tzeko (*sure semiek lagun bat dakarre gaur baskaitteko*).

Baina bere urritasunean, aski argiak dira ezaugarri bi hauek: helduaren erabilera hurbilago dago hizkera honen oinarri dialektologikotik.

6.5. Lexikoa

Lexikoan ugari dira diferentziak:

- Aukera desberdina. Ezkerraldean helduaren ordaina eta eskuinaldean gaztearena: *txarrikeidxie* ‘txerrikeria’ / *sikinkeridxe* ‘zikinkeria’; *mutikuok* ‘mutikook’ / *mutiyonek* ‘mutil honek’; *lar* / *larrei* ‘larregi’; *danbarrara* ‘danbarrada’ / *sarata*; *ariñ* / *goisetik*; *askeneantza* ‘azkenerantz’ / *askenaldidxen* ‘azkenaldian’; *aitta famas* ‘aita eta amarekin’ / *gurasuetas* ‘gurasoez’; *gustidxen* ‘guztian’ / *osuen* ‘osoan’¹⁰.
- Helduak mailegua eta gazteak euskal hitza: *allegau* ‘ailegatu’ / *eldu*; *estuidxuek* / *ikasketak*; *besinue* / *bisilagune*¹¹.
- Helduak euskal hitza eta gazteak mailegua: *gertatu* / *pasau*; *dxuen* ‘joan’ / *martxau*; *atxakidxe* ‘aitzakia’ / *eskusa*¹².

⁸ Esaldi osoak: helduak *esan egon goso baye yan ein ddau*; gazteak *eseuen goso baye yan ein ddau*.

⁹ Horra esaldi osoak: helduak *ekarri naixu seoser dxateko* eta *dxuen amendi ta itxi naixue bakien*; gazteak *ekarri seoser jateko* eta *martxau emendik eta itxi bakien*.

¹⁰ Eta hona hemen, hurrenez hurren, inkestako erdarazko ordainak: *porqueria*, (*estos*) *chicos* (berez, helduaren erantzun osoa *onek mutikuok* izan da), *demasiado*, *estruendo*, *pronto*, *últimamente*, (*de los*) *padres*, *todo*.

¹¹ Erdarazko ordainak: *llegar*, *estudios*, *vecino*.

¹² Erdarazko ordainak: *sucedet*, *ir*, *pretexto*.

Aldaera lexikoak

Honako hauek sumatu ditugu (helduaren ordaina ezkerretatik): *sueik* 'zuek' / *suek*; *amen* 'hemen' / *emen*; *gusture* / *gustora*; *etxunde* 'etzanda' / *etzunde*; *etxaten* 'itxuiten' / *etxoitten*; *tirriñ* 'zil ['ombligo']' / *txirriñ*; *yasarri* 'eseri' / *yesarri*.


7. EUSKARA BATUAREN ERAGINA

4. puntuak, datuen azalpenak, heldu eta gazteen arteko desberdintasunak seinatu ditugu, mota guztietakoak. Geroago, 6. puntuak, desberdintasun gehiago aipatu ditugu, galdesortan berariaz jaso gura izan diren ezaugarrietatik aparte.

Desberdintasun horien arrazoiak bat baino gehiago badira ere, horien artean pisu handia du euskara batuaren eragina. Gure ikerketan helburu garrantzitsu bat da neurtzea euskara batuak (edo estandarrek¹³) zein eragin duen euskalkian mintzatzen diren hiztunengan, gure kasuan Otxandioko hiztun heldu eta gazteengan. Pentsatzekoa da gazteengan batuaren eragina handiagoa izango dela, baina hori zenbatekoa den ez dago aztertua oraindik. Eta uste dugu errealitatearen berri izatea interesgarria eta beharrezkoa dela, batez ere etorkizunerako planifikaziorik egin nahi bada.

Hasteko, helduak batuaren oso eragin txikia jaso du. Gure datuen arabera, bi erantzunetan bakarrik ikusi dugu eragin hori, biak lexikoari dagozkionak (eta lexikoaren barruan azpimarratu behar da biak hilabeteen izenak direla). Hortaz, batuaren eragina ez da % 1era iristen helduaren hizkeran.

Gazteengan, aurreikusten zenez, eragina handiagoa da. Ondoko grafikokan ikus dezakegu euskara batuaren eragina hiztun gazteengan, arloka eta orotara:



¹³ 'Estandarra' kontzeptua batua baino zabalagoa bada ere, hemen sinonimotzat jotzen ditugu. Batua/estandarra auzirako ikus Alberdi 1999: sarrera.

Estandarraren eragin behinena lexikoan ematen dela uste bada ere, gure kasuan ez da hori gertatzen: lexikoa hirugarren postuan dago, sintaxiaren eta izen-morfologiaren atzetik.

Gure ustez, euskara batuak Otxandioko gazteengan duen eragina ez da handiegia; izan ere, handiagoa espero genuen.

Edozein modutan, eta helduen eta gazteen datuak erkatuz, esan dezakegu belaunaldi batean batuaren eragina % 8an handitu dela (eragin hori helduengan % 1ekoa da, eta % 9koa gazteengan). Datu hori izugarria ez bada ere, bada zerbait.

8. ONDORIOAK

“Euskararen Atlas sozio-geolinguistikoa” izeneko ikerketa-proiektua burutu bitartean, egoki ikusi dugu herri bakarrean (Otxandion) jasotako datuak ematea eta aztertzea. Erabateko eta datu fidagarriagoak lortzeko itxaron beharko dugu, baina anartean azterketa partzialak egiteari interesgarri irizten diogu.

Ikerketa honetan bi belaunaldiren (helduena eta gazteena) artean diren desberdintasunak neurtzea izan da gure helburu nagusia. Ondorio bat da helduen belaunaldiak atxikimendu handia erakusten diola bertako euskarari, oinarri dialektalari. Hala ere, azpimarragarria da batez ere lexikoan islatzen den erdararen eragina eta zenbait ezaugarritan erakusten den sinplifikazioa (adibidez, aditz trinkoen ordez perifrastikoak erabiltzea).

Helduen-gazteen arteko desberdintasunak: orotara alde garrantzitsua da, ia laurdena (% 23,2). Desberdintasuna sintaxian eta morfologian da nabarmenena, eta txikiagoa lexikoan. Horren arrazoiak askotarikoak dira: maileuak *vs* euskal ondareko formak, aukeran daudenen artean forma desberdinak aukeratzea, forma zaharrak *vs* forma berriak edo sinplifikatuak...

Euskara batuaren eraginari doakionez, helduengan hutsa den bitartean, gazteengan ia % 9ra iristen da.

AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI, X., 1999, *Euskaltzaindiaren araugintza berria: ikastaroa*, Bilbo, EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- ALONSO, I. & I. ARTIATX, 2005, *Otxandioko egungo egoeraren diagnostikoa eta plan estrategikoa* (http://hiznet.asmoz.org/images/stories/ikerketa_lanak/IdurreAlonsoArteatx.pdf).
- AUER, P., 1998, “Dialect Levelling and the Standard Varieties in Europe”, *Folia Linguistica*, XXXII/1-2, 1-9.
- AURREKOETXEA, G., 2003, “Euskalkiak estandarraren uholdepean (Arratiako kasua)”, in MENDEBALDE KULTURA ALKARTEA, *Ahozkotasuna aztergai*, 167-177.
- , 2004, “Estandar eta dialektoen arteko bateratze-joerak (ikuspuntu teorikotik begirada bat)”, *Uztaro*, 50, 45-57.
- , 2006, “Hizkuntza estandarraren eta dialektoen arteko bateratze joerak”, *ASJU*, XL:1-2, 133-160.
- , 2008, “Bariazio soziolinguistikoa Dimako euskarari”, *Euskalingua*, 12, 17-26 [www.mendebalde.com]
- & J. L. ORMAETXEA, 2006, “Euskararen Atlas Sozio-Geolinguistikoa’ ikerketa proiektua”, *Euskalingua*, 9, 157-163 [www.mendebalde.com].
- BELLMANN, G., 1998, “Between Base Dialect and Standard Language”, *Folia Linguistica*, XXXII/1-2, 23-34.

- BURGETE, X. & I. GAMINDE, 1991, *Otxandioko euskaraz*, Bilbo.
 KINTANA, X., "Euskal jeismoa: erraz konpontzeko gaitza", *erabili.com* [<http://www.erabili.com>]
 PRECIADO, J. M., 1994, *Kolorea herri euskaldun batean. Galdesorta baten diseinu eta aplikazioa Aramaioko bi muturretako belaunaldietan*, EHUko Argitalpen Zerbitzua.

LABURPENA

Otxandioko hizkera: adinaren arabeko bariazioa

Lan honekin aztertu nahi da zer bariazio dagoen euskalkia erabiltzen dutenen artean. Alegia, adina aldaera soziolinguistikoa kontuan hartuta, zeintzuk diren helduen eta gazteen artean dauden hizkuntza-desberdintasunak. Azterketa herri bakarrean egin da, Bizkaiko Otxandion, eta hizkuntzaren hainbat alor bereiziz: lexikoa, izen-morfologia, aditz-morfologia eta sintaxia. Arreta berezia jarri zaio euskara batuaren eraginari. Gako hitzak: hizkuntza-bariazioa, soziolinguistika, dialektologia.

RESUMEN

El habla de Otxandio: la variación según la edad

En este trabajo queremos investigar la variación lingüística que existe entre la gente que habla en dialecto. Es decir, teniendo en cuenta la edad como factor sociolingüístico, cuáles son las diferencias lingüísticas entre los adultos y los jóvenes. La investigación se ha realizado en la localidad vizcaína de Otxandio, diferenciando diversos campos de la lengua: el léxico, la morfología nominal, la morfología verbal y la sintaxis. Se ha puesto especial atención en la influencia del euskera unificado.

Palabras clave: variación lingüística, sociolingüística, dialectología.

RÉSUMÉ

Le parler d'Otxandio: variation en fonction de l'âge

Dans cette étude, nous étudions la variation linguistique entre les gens qui parlent en dialecte. En d'autres termes, en tenant compte de l'âge comme un facteur sociolinguistique, quelles sont les différences linguistiques entre les adultes et les jeunes. L'enquête a été menée dans la localité biscayenne d'Otxandio, et ont été différenciés divers domaines de la langue: le lexique, la morphologie nominale, la morphologie verbale et la syntaxe. Il a mis une attention particulière sur l'influence de la langue basque unifié.

Mots clef: variation linguistique, sociolinguistique, dialectologie.

ABSTRACT

The speech of Otxandio: the variation according to age

In this work we want to research the variation among people speaking dialect. That is to say, taking into account age as a sociolinguistic variant, which are the linguistic differentiations between young and middle age people. The research has been made in one village, in Otxandio (Biscay), and differentiating some fields in the language: lexicon, noun morphology, verb morphology and syntax. Special attention has been put in the influence of Unified Basque.

Key words: linguistic variation, sociolinguistic, dialectology.